

KARTEL ILUSTRAZIOA, ZER NAHI DUGU ADIERAZI?, MATTIN

Irakaslea:

Iñaki Martiarena Otxotorena, "Mattin", Informazio Zientzietan Lizentziatua. Esperientzia profesional oparoa du hainbat alor grafikoetan: komikia, diseinua, ilustrazioa, etab...



@Gari Garaialde

Deskribapena eta helburuak:

Ikasleak kartel bat diseinatu eta osatuko du. Horretarako lanabes grafiko eta emozionalak aztertu eta landuko ditugu, praktikaren bidez.

Zirriborroa, mezua, teknika, euskarria, etab... Gure buruari galdetuko diogu: "zer nahi dugu adierazi?" "zertarako egin kartela?"

Publiko ororentzat. Ez da beharrezkoa marrazten jakitea. Jolasa eta sormena ditugu oinarri.

Data-Ordua:

2021ko azaroak 6, 13 eta 20: 11:00 – 12:30.

Hizkuntza:

Euskara.

Ikasleak eraman beharreko materiala:

Arkatza, papera (A3 tamaina), errotuladoreak, gouatxea, pintzela eta ura.

(Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroan zehar behar izan daitezkeen musika-tresnak edo bestelako materialak ikastaroko ikasleek

emango dituzte. Ikastaro batzuetan, hasteko oinarrizko material bat jarri ahal izango du Donostia Kulturak).

Oharrak:

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Horregatik, Donostia Kulturaren Kontingentzia planak agindutako segurtasu eta higiene neurriak jasotzen dituen protokoloa errespetatu beharko da.